LT LGAKZ 21/2026 **IL DDLCN 21/2026**
NBNC_CCO_7333/25_07

LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, SEGURTASUN SAILAREN (ERTZAINTZA) BITARTEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK ETA BILBAO EKINTZA, E.P.E.L. TOKIKO ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK SEGURTASUN-MATERIALA ALDI BATERAKO LAGATZEAREN ESPARRUAN SINATUTAKO HITZARMENARI BURUZKOA.	**INFORME DE LEGALIDAD RELATIVO AL CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, A TRAVÉS DEL DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD (ERTZAINTZA), Y LA ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL LOCAL BILBAO EKINTZA, E.P.E.L., EN EL MARCO DE LA CESIÓN TEMPORAL DE MATERIAL DE SEGURIDAD.**
I.- AURREKARIAK	**I.- ANTECEDENTES**
Goiburuan aipatutako hitzarmenari dagokionez, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honen nahitaezko legezkotasun-txostena eskatu du Segurtasun Sailak. Eskaerarekin eta hitzarmenaren testuarekin batera, organo eskatzaileak Ertzaintzaren zuzendariak sinatutako azalpen-memoria eta Segurtasun Saileko Aholkularitza Juridikoaren txosten juridikoa aurkeztu ditu.	El Departamento de Seguridad solicita el preceptivo informe de legalidad de esta Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo, en relación con el convenio citado en el encabezamiento. Juntamente con la solicitud y el texto del convenio, el órgano solicitante aporta memoria explicativa suscrita por la Directora de la Ertzaintza e informe jurídico de la Asesoría Jurídica del Departamento de Seguridad.
Txosten hau Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1.i) artikuluan xedatutakoaren arabera egin da, eta 317/2024 Dekretuaren, urriaren 29koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenaren 14. 1 c) artikuluak dinoenaren arabera.	El presente informe se emite en virtud de lo dispuesto en el artículo 9.1.i) del Decreto 18/2024, de 23 de junio,, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos; y en relación con lo prevenido en el artículo 14. 1 c) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.
Era berean, adierazi behar da, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016	De la misma forma, cabe señalar que, de conformidad con la regulación que ofrece

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

Legearen 5.1.b) artikuluak eskaintzen duen erregulazioarekin bat etorriz, aholkularitza juridikoaren funtzioaren barruan sartzen dela Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio edo hitzarmenen proiektuei buruzko nahitaezko txosten juridikoa ematea, erregelamendu bidez zehazten diren kasuetan; Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren bidez landutako erregelamendu-garapena da, eta txosten honen nahitaezkotasuna arautzen du 13.1.b) artikuluan.	el artículo 5.1.b) de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, forma parte de la función de asesoramiento jurídico la emisión de un informe jurídico preceptivo respecto de los proyectos de acuerdos o convenios que se suscriban por el Gobierno Vasco en los supuestos que se determinen reglamentariamente; desarrollo reglamentario ya abordado por Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco y que regula en su artículo 13.1.b) la preceptividad del presente informe.
II. LEGEZKOTASUN-KONTROLA	**II. CONTROL DE LEGALIDAD**
1.- Azterketa formala	**1.- Análisis formal**
Segurtasun Sailak, bere ekimenarekin batera (aurrekarien atalean jasotzen den bezala), hitzarmen hau izapidetzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu du, hitzarmen horren beharra eta legezkotasuna justifikatzeko, bai eta ondorio ekonomikorik ez duela justifikatzeko ere. Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzaren memoria ekonomikoan adierazten da ez dagoela hitzarmenetik eratorritako kontraprestazio ekonomikorik.	El Departamento de Seguridad ha aportado junto con su iniciativa (como ya se recoge en el apartado de antecedentes) la documentación requerida para la tramitación del presente convenio, en aras a justificar la necesidad y legalidad de dicho convenio, así como la ausencia de repercusión económica del mismo. En la memoria económica de la Dirección de Gestión Económica se indica que no existe contraprestación económica derivada del convenio.
Bestalde, hitzarmenaren izapidetzea bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen zehaztapenekin, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa arautzen duen apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren XIII. tituluan ezarritakoarekin ere, Segurtasun Saileko Aholkularitza Juridikoak egindako txostenean justifikatzen den bezala; eta, beraz, ez da legezkotasun akatsik ikusten ikuspegi formal horretatik.	Por otra parte, la tramitación del convenio se ajusta a las determinaciones de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como a lo establecido en el Título XIII del Decreto 144/2017, de 25 de abril, de Regulación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, tal y como se justifica en el informe emitido por la Asesoría Jurídica del Departamento de Seguridad, por lo que no se aprecia tacha de legalidad alguna desde esta perspectiva formal.
2.- Analisi materiala	**2.- Análisis material**
Ikuspegi materialetik, hitzarmen-proiektuan planteatutako helburuak kontuan hartuta, argi dago parte hartzen duten administrazioek legezko gaitasuna dutela hitzarmena sinatzeko, bai eta	Desde la perspectiva material, teniendo en cuenta los objetivos planteados en el proyecto de convenio, resulta evidente la capacidad legal de las Administraciones intervinientes para suscribir el mismo, así

interes publikoko helburu komun bat dagoela ere, alderdiak era formalean eta berariazko lankidetza-nahiarekin lotzen dituena.	como la existencia de un fin común de interés público que vincula a las partes en su formal y expreso deseo de colaboración.
2.1 Xedea	**2.1 Objeto**
Hitzarmenaren xedea da (lehen klausula) “Pitagone F18” direlako ibilgailuen aurkako 39 hesi, aldi baterako eta doan lagatzea Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Ertzaintzaren bitartez.	El convenio tiene por objeto (cláusula primera) la cesión temporal y gratuita al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, a través de la Ertzaintza, de 39 barreras antivehículo Pitagone F18.
2.2 Gaitasun materiala	**2.2 Competencia material**
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kasuan, Autonomia Estatutuaren 17.1 artikuluak autonomia-erkidegoari esleitzen dio "pertsonak eta ondasunak babestea eta lurralde autonomoan ordena publikoa mantentzea". Eskumen hori Eusko Jaurlaritzak egikaritzen du, Segurtasun Sailaren bitartez, non Ertzaintza barne hartuta dagoen.	En el caso de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el artículo 17.1 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma la competencia en materia de *“la protección de las personas y bienes y el mantenimiento del orden público dentro del territorio autónomo”.* Esta competencia se ejerce por el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Seguridad en el que se integra la Ertzaintza.
Beraz, Segurtasun sailburuak hitzarmena sinatzeko duen eskumena Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 4. artikuluan oinarritzen da.	Por tanto, la competencia del Consejero de Seguridad para la suscripción del convenio tiene su fundamento en el artículo 4 del Decreto 318/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad.
BILBAO EKINTZA, E.P.E.L. enpresaren izenean Concepción Claver Zurrok sinatzen du, bere estatutuetako 10. artikuluan BILBAO EKINTZAko lehendakariari (IFK: Q-4800731 D; helbidea: Nafarroa kalea 5, 48001 Bilbao) ematen zaizkion eskumenei jarraiki. Lehendakaritza 2024ko irailaren 30eko Bilboko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez egindako izendapenaren ondorioz hartu da. Aurkeztutako dokumentazioan ez dago hitzarmena sinatzeko eskumenaren dokumenturik, eta hori komenigarritzat jotzen dugu.	Por parte de BILBAO EKINTZA, E.P.E.L. figura como firmante Concepción Claver Zurro en virtud de las atribuciones previstas en el artículo 10 de los Estatutos a el/la Presidente/a de BILBAO EKINTZA, EPEL, con CIF Q-4800731 D y domicilio en C/ Navarra, 5, 48001 Bilbao. Presidencia asumida en virtud de nombramiento efectuado por Resolución de Alcaldía de Bilbao de 30 de septiembre de 2024. Entre la documentación aportada no consta la citada atribución de competencia para firmar el convenio, lo cual consideramos conveniente.
	2.3 Naturaleza jurídica

2.3 Izaera juridikoa Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan aipatzen den hitzarmen-motakoa da; hau da, administrazio publiko bik edo gehiagok sinatutako administrazioen arteko hitzarmena da, edo administrazio publiko batzuei lotutako edo haien mendeko bi organismo publikoren edo gehiagoren artekoa. Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa arautzen duen apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 54. artikuluak adierazten duen bezala, hitzarmenak dira administrazio publikoek, organismo publikoek eta haiei lotutako edo haien mendeko zuzenbide publikoko erakundeek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin xede komun baterako hartutako akordioak. **2.4 Klausulen azterketa** Hitzarmen honek administrazio arteko akordio mota horiek barne hartu behar dituzten alderdi guztiak jasotzen ditu. Hori horrela izanik, testu honek azalpen-zatia eta hamabi klausula ditu. Klausula horiek, oro har, bat datoz administrazioen arteko akordio mota horiei aplikatu beharreko arau-aurreikuspenekin. Segurtasun Saileko Aholkularitza Juridikoak egindako txostenak azterketa betea eta oso zehatza egiten du hitzarmenaren edukiari buruz. Bat egiten dugu aipatutako txostenarekin, eta, gure ustez, ez dago klausulen inguruan inolako gaitzespen juridiko-materialik.	El presente convenio tiene naturaleza administrativa y es del tipo de convenios a los que se refiere el artículo 47.2.a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, es decir, es un convenio interadministrativo firmado entre dos o más Administraciones Públicas, o bien entre dos o más organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes de distintas Administraciones Públicas. De acuerdo con lo establecido en el artículo 47.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, antes mencionada, y como también indica el artículo 54 del Decreto 144/2017, de 25 de abril, de Regulación del Servicio Jurídico del Gobierno vasco, los convenios son aquellos acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común. **2.4 Análisis del clausulado** El presente convenio contempla todos los aspectos que deben integrar este tipo de acuerdos interadministrativos. Siendo eso así, este texto consta de parte expositiva y doce clausulas, que se ajustan, con carácter general, a las previsiones normativas de aplicación a este tipo de acuerdos interadministrativos. El informe emitido por la Asesoría Jurídica del Departamento de Seguridad realiza un análisis exhaustivo y muy preciso sobre el contenido del convenio, cuyas consideraciones compartimos, no existiendo, a nuestro juicio, reproche jurídico-material alguno que realizar con respecto al clausulado.

Soilik adierazi, hamabigarren klausulari dagokionez (auzitegien jurisdikzioari buruzkoa da), komeniko litzatekeela zehaztea hitzarmena interpretatzeari eta betearazteari buruzko eztabaidak egonez gero administrazioarekiko auzien jurisdikzioa dela jurisdikzio eskuduna. Egia da eskumen hori berez izango duela legez, hitzarmenean adierazi ezarren, baina sinatzaileentzako gogorarazpen argigarria izango litzateke. Bederatzigarren klausulan aurreikusitakoarekin bat, hitzarmenaren izaera administratiboa zehazten baitu, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien auzitegien eskumena berez dakar.	Únicamente señalar, respecto a la cláusula duodécima, relativa a la jurisdicción de los Tribunales, que sería conveniente que se determinara que en caso de existir controversias sobre la interpretación y ejecución del convenio la jurisdicción competente es la jurisdicción contencioso-administrativa. Ciertamente, esa competencia jurisdiccional la ostentarán los dichos tribunales en todo si y por prescripción legal, independientemente de si ello se recogiera o no en el convenio. Pero creemos que sería un recordatorio clasificador para los firmantes. Ello, en coherencia con lo previsto en la cláusula novena que determina la naturaleza administrativa del convenio y, en consecuencia, la competencia de los tribunales contencioso administrativos.
III.- ONDORIOA Azaldutakoarekin bat etorriz, aldeko irizpena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren (Segurtasun Sailaren bitartez) eta Bilbao Ekintza, E.P.E.L. Tokiko Enpresa Erakunde Publikoaren arteko hitzarmenaren zirriborroari, segurtasun-materiala aldi baterako lagatzearen esparruan. Hau da egiten dudan txostena, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dudana.	**III.- CONCLUSIÓN** De conformidad con lo expuesto, se informa favorablemente el borrador de convenio entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través del Departamento de Seguridad (Ertzaintza), y la Entidad Pública Empresarial Local Bilbao Ekintza, E.P.E.L., en el marco de la cesión temporal de material de seguridad. Este es el informe que emito y que someto a cualquier otro mejor fundado en Derecho

Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren datan.